

«Auzokoakaz gozatzeko egiten dugu Athletic Eguna»



CARLOS GONZÁLEZ
Athletic Goitiko Taldeko
presidenteordea

hirulka

130. zenbakia

2018ko ekainaren 14tik 20ra arte



«Elizaren erronka nagusia marketina da»

Bizkaiko abade gazteena da Borja Uriarte, 26 urteko bilbotarra. Garai berriek agindu legez, hiru parrokiatan banatzen du lana, bakarraren orde: Barrika, Sopela eta Urduliz. Abadegai-faltaz eta Elizaren premiez jardun du, baita bere eguneroko bizimoduaz ere.

GETXOKO AURREKONTUAK | 4

AKORDIO BERRIRIK EZ DAGO, MOMENTUZ

PPk bertan behera utzi du Gobernu-taldeagaz zeukan akordioa. Oposizioak aurrekontuen inguruko eztabaida aldarrikatu du.

URDULIZKO METRO-GELTOKIA | 5

PLAZA HANDI BAT, GELTOKIAREN ORDEZ

Urdulizko Udalak onartu du «hasiera batez» metroko linea eta Urdulizko geltokia zeuden gunea urbanizatzeko proiektua.

TXIPIO BIDEA | 6

KALEA URBANIZATUKO DU PLENTZIako UDALAK

Ur Partzuergoagaz saneamendua berritzeaz gain, askotariko hobekuntzak egingo dituzte inguru horretan.

BARRIKA ETA LEIOA JALETAN | 8-11

SANJUANAK ATE-JOKA DAUDE HERRI BIETAN

Leioan ekainaren 15ean hasi eta aste-akabu bitan egongo dira ekitaldiak; Barrikan, ostera, ekainaren 21etik 24ra arte.

«Eliza oso-oso produktu ona o



Uriarteren ustez «hutsegite ikaragarria» litzateke Elizak Jaungoikoa gutxiago aipatu eta lan soziala azpimarratzea. «Elizak zerbitzu sozial izaera dauka Jaungoikoa bere mezuan dagoelako, hain zuzen».

Iazko abenduan ordenatu zen Borja Uriarte 26 urteko bilbotarra, eta honenbestez Bizkaiko abade gazteena da, hilabete batzuk barru seminarioko kide ohi batek «erreleboa» hartuko badio ere. Sopela, Urduliz eta Barrikako abadea da gaur egun.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Abade bat hiru herritarako, gero eta gutxiago zarete... Egia da, gutxi ordenatzen gara eta asko jubilatu. Hor daukagu erronka bat. Joera, orain, parrokiak batzea da, hainbat parrokiatarako abade bakarraz, eta bertako jendeagaz elkarlanean, egitekoak aurrera ateratzeko. Eskualdeak berregituratu behar dira abade bat egon dadin behintzat meza guztietan. Berbarako, herri bakoitzean ordutegi bat ipiniz. Horrez gain, erretiratutako abadeek asko laguntzen dute, eta ez meza emateko bakarrik.

Hamazortzi urte zeneuzkala sartu zinen seminarioan. Zenbat zineten? Lehenengo urtean bi sartu ginen, eta urte batzuk kan-

Abadegai gutxi
«Bokazio-falta Europako arazoa da, Europa maila askotan dabil txarto, ez erlijioan bakarrik. Beste kontinenteetan Eliza hazten dabil»

poan emandako bat itzuli zen. Guztira zazpi inguru ginen. Baina amaitu nuenean hamaika geunden, eta gaur egun ere antzera.

«Nik uste nuen bakarra edo gehienez bi egongo zirela», pentsatuko du batek baino gehiagok. Bestela esanda, bokaziorik ez dagoela. Hamaika gutxi dira Bizkaiko biztanleriagaz konparatuta, baina herrialdean dagoen abade-premia kontuan hartuta ere, baina ez da kopuru makala. Beharbada horixe da egon behar duen kopurua, eta guri erronka berriei eustea eta logistika-arloan zenbait gauza berregokitzea dagokigu.

Izan ere horretan zabilzate, ezta? Bai. Esan dezagun bokazio-falta Europako arazoa dela guztiz. Europa maila askotan dabil txarto, ez erlijioari dagokionez bakarrik. Besteak beste, biztanleria oso zaharkituta dago, eta halakoxeak dira ondorioak. Gainerako kontinenteetan Eliza hazten dabil, edo zenbakiak ez dira hain txarrak behintzat. Gazteagoak dira, eta espiritualtasuna beste modu batera bizi dute. Gaur egun, Hego Amerikatik, Indiatik... etortzen dira laguntzera behinola misiolari-lurraldea izandako Europara. Bizkaia bera izan da mi-

da; ondo “saltzea” da gakoa»

siolari-iturri garrantzitsua. Orain, zelanbait esatearren, guri mesedea bueltatzera datoz eurak.

Mesedetzat daukazu? Ebanjelizatzea oparitzat daukat, bai. Baloak transmititzen dira. Egia da oker handiak egin direla historiako momentu batzuetan, ez genituzke geure buruak zuritu behar, ezta epai anakronikorik egin ere. Baina ebanjelizatzen duzunean, eta ondo egiten duzunean, itxaropenezko mezua zabaltzen duzu. Gaur egun batez ere, zenbat zauri dagoen ikusita, fedeak lagundu egiten dio fededunari.

Zenbat bider entzungo zenuen: «Hain gazte, eta abadea!». Denboraz gainditu egiten dela esan ohi dut, kar kar.

Txantxak albo batera utzita, gaur egun gazteentzat dagoen kanpo-estimulu eskaintza izugarria kontuan izanda, gauza askori uko egitea da abade joatea? Ukoak egon badaude, egia, eta ematen du abade izateagatik hemendik kanpora pentsaezinak diren gauzei egiten zaiela uko. Baina bizitzea uko egitea da. Unibertsitatean karrera bat aukeratzen baduzu, besteei uko egiten diezu. Norbaitegaz ezkontzen bazara, munduko beste pertsoneri uko egiten diezu. Gaur egun modan dago ezeri uko ez egitea, aukera guztiak eskura edukitzea, gura dudana gura dudanean egiteko. Horrek ondorioak dauzka, eta bere horretan ukoa ere bada. Nik aukeratutako ukoak neure bizitzan txertatzen ikasi behar dut, modu sanoan, bestela korapilatu egiten da kontua. Erlijioari lotutako bizimodua, familia bat eratzeari uko egitea, zelanbaiteko bakardadean bizitzea... Naturaltasunez berba egiten dugu gauza horiez, ez dago ilunkeriarik hor.

Bizimodu bakartia da abadearena? Badago bakardaderik, ez familia bat osatzeko ukoagatik bakarrik, baita beste arlo batzuetan ere. Ni kide bategaz bizi naiz Plentzian, abade-etxe batean, nor bere apartamentuan, eta ez gara sarritan egoten elkarregaz. Baina bila daiteke bakardadea modu osasungarrian bizitzeko bidea; bakardadea ez da berez txarra. Ni, egia esanda, bilerak direla, topaketak direla, egun osoa parroketan... ez nago bakarrik ia momentu batean ere, hala ere badago norberaren bizitzan txertatzen asmatu behar den bakardade moduko bat.

Zelibatua kentzeak ez luke lagunduko bokazio-kopurua handitzen? Zenbakiak erakusten dute ezetz. Eliza protestanteetan eta anglikanoan baimenduta dago ezkontzea (horietan abade izateak beste esangura bat badauka ere, dena esan behar bada) eta kontua ez dago hobeto horietan. Arazoa soziala da, ez zelibatuarena. Eliza katolikoan diziplina-neurria da, beti egon ez dena, eta berriro kendu litekeena, ez da mugiezina.

Kontuak kontu, «abadeak bai ondo bizi!» esan ohi da. Hori egia da; ondo bizi gara. Ni ordenatu baino apur bat lehenago ranking bat argitaratu zuten ez dakit non, lanbiderik zoriontsuena gurea zela zioena. Bigarrena suhiltzaileena zen. Ondo bizi gara jendearengandik oso hurbileko lana egiten dugulako, eta horrek asko laguntzen duelako zoriontsua izaten, ordainean asko jasotzen baita. Bestalde, sufrimendu ugari partekatu beharra dago, baina horrek ere aberastu egiten du. Eta agerikoa da Jaungoikoagaz harremanak ere ekarpen handia egiten digula; suposatzen dut jende asko ez dela honegaz ados egongo, baina tontokeria kentzeko oso lagungarria da.

Zein zentzutan? Erreferentzia bat daukazu. Eta ez daukazu oso epe laburreko proiekturik. Bizitzaren zergatia (eta halaxe ikusten dut inguruan) ondo pasatzea bada, zer gertatzen da? Bada, aste-akabu osoan irteteko indar nahikorik ez daukadanean txarto pasatzen hasiko naizela, edo goizaldeko seiak arte

Zelibatua

«Zelibatua kentzeak ez luke bokazio-kopurua handituko. Eliza protestanteetan baimenduta dago ezkontzea, eta ez dabilta hobeto»

Abade izateko bidea

Borja Uriartek ez dauka gogoan abade izateko erabakia hartu zuen une jakinik. Apurka-apurka barruan hazi zitzaion sentsazio-multzo batek eroan zuen orain daukan bizibidera. Familia katoliko praktikante bateko semea, eskola erlijiosoan ikaslea... Ez zen hori nerabezeroan mugitzen zen giro bakarra, baina gustura zebilen hor. Batxilergoko bigarren mailan, etorkizuna planifikatzen zebilela, erabaki zuen «Jaungoikoa ekuazioan sartu» eta seminarioan proba egitea. Ez zaio damutzen.

Abade zoriontsuak

«Ranking bat argitaratu zuten, lanbiderik zoriontsuena gurea zela zioena. Bigarrena suhiltzaileena zen»

«Ez dut hau lanbide bategaz parekatzen»

Abade batek ez dauka eguneroko errutina finkorik, suertatzen dena baino. HIRUKAgaz egon ostean, barbarako, Urdulizko elizara joan behar zuen Borja Uriartek, elikagai-bankukoakaz egotera. Eta ondoren Gorlizko ospitalera, gaixoak bisitatzen. Parrokiako boluntarioakaz bilerak, diru-kontuak egin... Bulego-lan gutxi, hala esatea zilegi bada: «Meza prestatzea otoitz egitea da batez ere; esan behar den gehiena badago aurretik ezarrita». Egunero-egunero eman behar du meza, eta oporrik ez dauka, baina suerta dakioke oso zeregin gutxiko goizen bat, hamalau orduko jardunaldia suerta daitekeen bezala. «Ez dut hau lanbide bategaz parekatzen, ez dut egunero joan behar obrara, edo zortzi orduz bulego batera; bizitzeko modu bat da». Hilean mila euroren truke, bide batez esateko.

etsi ahal izateko zenbait gauza egiten hasiko naizela, gerora ordaina ekarriko didatenak; aste-akabuan ondo pasatzea baita nire bizitzako ideia nagusia. Hori oso zabalduta dago gaur egun. Hemen, berriz, horrela ez jokatzen laguntzen duten erreferentziak dauzkagu, eta nire ustez hori ondo bizitzea da.

Bat etorriko zara nigan jendartea Elizatik urruntzen dabilela, bizitzaren errito garrantzitsu batzuetan oraindik indarrez zabilzaten arren. Ezkontzak, hiletak... Tira, ezkontzetan dagoeneko ez e? Hiletetan bai, hori bai. Arlo zibila indarra hartzen dabil, eta niri oso ona iruditzen zait hori.

Baina oro har zuengandik aldentzen dabil jendea. Birziklatu egin beharko luke Elizak? Hainbat eremutan badabil. Baina ez da birziklatze-kontua, gauza esateko moduarena baino. Uste dut Elizaren erronka nagusia marketina dela. Produktua oso-oso ona da, ondo «saltzea» da gakoa. Eta estrategia onena hurbiltasuna da, apaltasuna, gardentasuna. Erratu egiten bagara, esatea. Eta berba hutsalik ez erabiltzea, gizakiak garela onartzea. Benetakoak izan behar dugu, eta sinesten ez dugunik ez esatea. Aita sainduagaz hori jazo da: ulertzeko moduan esaten ditu gauzak.

Mezutik Jaungoiko apur bat kentzea eta lan sozial gehiago sartzeari uko egitea ez litzateke estrategia ona? Ez, hutsegite ikaragarria litzateke. Elizak zerbitzu sozial izaera nabarmena dauka Jaungoikoa bere mezuaren barruan dagoelako, hain zuzen. Ostera absurdoa litzateke, beste GKE bat bihurtuko ginateke. Badago hala garela pentsatzen duenik, izan ere; pare bat garagardo edaten dugun bitartean eztabaidatu genezake horretaz [irribarre].

Eztabaidatu dezagun orain. Elizak badauka GKE izaerarik, zerbitzu sozial parte bat daukalako. Hori agerikoa da. Beste inkesta bat aipatuko dut: ospe onaren ranking batean azkenetakoa suertatu zen Eliza, Espainiako Errege Etxeagaz eta alderdi politikoakaz batera, besteak beste. Zerrendaren goiko aldean GKEak zeuden hain zuzen, eta beharbada futbol-talderen bat. Baina ranking hori bera bazterkeria-eremuetan egin zen, espetxeetan eta halakoetan, eta Eliza izan zen lehenengo edo bigarrena. Elizak zerbitzu sozial-sare liluragarria dauka: ospitaleak, eskolak, Cáritas bera... Cáritas ere eliza baita, Elizaren muinean dago izan ere, Elizak ez dauka zentzurik karitate barik. Are gutxiago Jaungoiko barik. Jaungoiko barik, amaitu egingo litzateke Eliza. Gauza biek egon behar dute.

Jendea elizetara bueltatzea da zuen helburua? Ez, ez da kopuru-kontua. Gakoa da bertan dagoena benetan egotea. Benetaketan handiagoa edukitzea da erronka nagusia. Hori da lehen aipatu dudako marketinaren muina, nire ustez. Horrek jendea erakarriko du? Auskalo. Oso gai konplikatu da, ez da Elizaren kontua bakarrik. Jendartean bertan sekularizatze handia dago, beste lehentasun batzuk dauzkagu orain, beste kezka batzuk daude, horietako asko oso ulergarriak noski. Orduan, Elizak badauka zer esanik? Jakina badaukala! Baina zenbait gauza esateko, lehenik eta behin horiek sinetsi beharra dago. Ez diot ez dugunik hala egiten; esan gura dudana da kanpoko jendeak ikusi egin behar duela zintzotasunez gabiltzala. Egiten diguten kritikarik handienetako bat da sekta garela, ilunpean gabiltzala... Tira, zergatik esaten da hori? Ezjakintasunagatik? Bai. Pertsona batzuek edukitako bizipenengatik? Baita ere. Horren gainean autokritika egin beharko dugu, bada.

Egiten duzue nahikoa? Ahalegindu egiten gara, eta pertsona bakoitzaren arabera ere bada. Eliza jainkotiarra da, baina gizatiarra ere bai. Elizan bekatua dago, noski. Konbertsioa ere egotea da helburua. Elizan, eta Elizatik kanpo.◀

GETXO | Udal-politika

Aurrekonturik ez, momentuz

Aurrekontuak onartzeko akordioa hausteko erabakia hartu du PPk, eta horiek onartzeko udalbatza ez egitea erabaki du Gobernu-taldeak.

IKER RINCON MORENO ▶

Getxoko Gobernu-taldearen (EAJ eta PSE-EE) eta PPren arteko akordioaren hausturaren harira, oposizioko talde denek deitoratu dute Imanol Landa alkateak aurrekontuak eztabaidatzeko bidea oztopatu duela. Proposamen hori bozkatu behar zen hilaren 7an, eguenean, baina Landak ezohiko udalbatzarako deialdia bertan behera utzi zuen bezperan, popularrak hitzarmena aldeakartasun osoz bertan behera utzi zutela jakinarazi ondoren.

Raquel González Bizkaiko PPren presidentek iragarri zuen eguaztenean, hilaren 6an, bere alderdiak Getxoko Gobernu-taldeagaz hartutako akordioak etengo dituela. Horren harira, PPk baieztatu zuen ez dela EAJz fidatzen, jeltzaleek Mariano Rajoyren aurkako zentsura-mozioaren inguruan hartutako erabakiaren ondoren.

EZTABAIDATZEKO AUKERARIK EZ. Gobernu-taldeak jakinarazi duenez, «oso atseka-betuta» dago popularrak hartutako alde bakarrek erabakiagatik, eta eskua luzatu die udal-taldee, «elkarguneak eraikitzen jarraitzeko». Bien bitartean, oposizioko udal-talde denek, popularrak izan ezik, deitoratu dute EAJk eta PSE-EEK ez dutela aurrekontuen inguruan eztabaidatu gura, eta horregatik horiek onartzeko bozkatu behar zuten ezohiko udalbatza bertan behera utzi duela Imanol Landa alkateak. «Onartezina da aurrekontuak bezain gai garrantzitsu batez eztabaidatzeko aukera ukatzea oposizioari», salatu du Santiago Sainz Ciudadanoseko zinegotziak;



Popularrak «historikotzat» hartu zuten Gobernu-taldeagaz egindako akordioa.

Urte honetarako aurrekontuak udalbatzan eztabaidatzea eskatu dute oposizioko talde denek, PPk izan ezik.

gainera, gaitzetsi egin du akordio bat mahai-gainean dagoenean bakarrik eskaintzen dutela udal-agintariek eztabaidarako tartea.

EH Bilduk, bere aldetik, salatu du akordio horren helburua ez zela getxoztarren beharrezan asetzea, «Madrilen EAJk eta PPk eskuratutako akordio politikoari erantzutea baizik». Era berean, aurrekontuak udalbatzan eztabaidatzea eskatu du koalizio abertzaleak, «alderdi denek euren jarrerak eta emendakinak azal ditzaten». Ildo beretik, GUK taldeak bere «ezintasuna» azaleratu du, Gobernu-taldeak duen kudeatzeko «arduragabekeriagatik». Salatu dutenez, «Udala aurrekonturik gabe utzi du EAJk, akordiorik ez duelako». Horren harira, Gobernu-taldeak iragarri du eskua luzatuko diola berriro ere PPri hitzarmena berreskuratzeke, «baita Udaleko gainontzeko alderdiei ere, elkarguneak eraikitzen jarraitzeko, hiritarren mesedean». ◀

Udal-taldee galdezka

«Eskua luzatuko diogu berriro PPri hitzarmena lortzeko, baita gainontzeko alderdiei ere, elkarguneak eraikitzen jarraitzeko»

GOBERNU-TALDEA
EAJ-PSE

«Ez dugu segurtasunik, behin onartuta, EAJk aurrekontuak kreditu gehigarrien bidez moldatuko ez dituela esateko»

PP

«Aurrekontuen gaineko eztabaida joan den urteko urrian egin behar zen, eta bederatzi hilabeteko atzerapena daroagu»

GUK

«Akordioaren helburua ez zen getxoztarren beharrezane erantzutea, baizik eta Madrileko akordio politikoaren menpe jartzea»

EH BILDU

«Aurrekontuen gaineko eztabaidarako gunea ukatu digu Gobernu-taldeak oposiziokooi, eta hori onartezina da»

CIUDADANOS

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

Ezagutu gaitzazu!!!

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

URDULIZ | Trenbideko lurretarako proiektua

Plaza handi batek hartuko du antzinako geltokiaren lekua

Urdulizko Udalak onartu du «hasiera batez» metroko linea eta Urdulizko geltokia lurperatzearen ondorioz libratu den lekua urbanizatzeko proiektua. Hiru fasetan, 15.000 metro koadro ordenatuko du Udalak.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Egitasmoaren lehenengo faserako, i2G Arquitectos SLP arkitektura-estudioak proposatu du 8.000 metro koadrotan eragitea, Plentziarantz zihoan trenbideak utzita-ko lekuan, gerora ipini zuten belarraren ordeez. Bertan, mila metro koadroko plaza bat, plazan amaituko diren hiru kilometroko pasealekuak, 2.200 metro koadroko berdeguneak eta 600 metroko luzerako bidegorria dira ipintzekoak, 1,7 milioi euro bideratuta. Hala, Gobela eta Zuberoa kaleen ingurua nabarmen aldatuko da eta Aita Gotzon kalean, autoen trafikorako herriko bizkarrezurrean, bizikletak erditik joango dira.

Udalak urte bi eman ditu metroko obrak amaitu zirenetik proiektua behin-behinean onartu arte. Aurretik, iaz, hitzarmena sinatu zuen Bizkaiko Garraio Partzuergoagaz eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoagaz, obrek eragindako bertako saneamenduaren 1. eta 2. zatietako lanak finantzatzeko, eraikitze eta mantentzeko. Hirigintza-proiektu berriaren aurretik egin beharreko lan horien aurrekontua 1,5 milioikoa izan zen, eta Udalari % 25 ordaintzea egokitu zaio.

Udalak ohiko prozedurari segitu dio trenbidea zenaren superfiziea urbanizatzeko lehenengo faserako: erabakia hartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete bateko epea eman zien auzokideei, proiektua jendaurrean erakutsita, gura zuenak alegazoren bat aurkez zezan. Horrez gainera, egitasmoaren berri eman zien, «pertsonalki, ugazabei eta zuzenean eragiten dien gainerako interesdunei». Jasotako alegazioak zelan bideratu erabakitzea dagokio orain Udalari, proiektua martxan ipini aurretik. Hondeamakinak lanean hasiko direnetik urte batera lanak amaituta egotea aurreikusten dute arkitektoek. Halere, aurretik aurtengo udal-aurrekontuak onartu behar dituzte. Hilabete honetan espero dute egitea, EAJk daukan gehiengo osoari esker, baina udal-iturriek azaldu



Verónica García zinegotziak deitoratu du tabernaren ondoko «parketxoa» kentzea, bankuak ipintzeko. HODEI TORRES

Ikuspuntu ezberdinak

«Udal-aurrekontuak onartuta hasiko dira obrak»

JABIER BILBAO LOPATEGI
URDULIZKO ALKATEA

«Ez gaituzte proiektuaz informatzen, ezta dokumentua aberasteko gure ekarpenak eskatzen ere»

JOSU IRATZAGORRIA JAUREGI
EH BILDUKO ZINEGOTZIA

«Ezer aldatu ezin denean emango dituzte azalpenak»

VERÓNICA GARCÍA GARCÍA
DENOK BATERAKO ZINEGOTZIA

dutenez, oraindino ez dago datarik Udalbatza biltzeko. Bitartean, batzordean segitzen dute aurrekontuak lantzen.

OPOSIZIOA EZ DAGO GUSTURA. Josu Iratzagorria EH Bilduko zinegotzia kexu da, ez dietelako informazioa ematen. Gaia «mar txan ipini zela» jakindakoan, koalizioak zenbait proposamen egin zituen: parking txiki bat, «inguruko dendetan erosi ahal izateko»; bizikletak uzteko gun e estalia; umeentzako parkea; bidegorria; Araba eta Zuberoa kaleen arteko oinezko bidea; Sopelarako pasealekua; eta oniritzia eman zioten saihesbide bat egiteari, Mecánica de la Peñatik elizaldera, «autoak herriaren erditik pasatu barik». EH Bilduren arabera, «aurka bozkatu zuen EAJk, aurrerago erabakiko zela esanez». Gainera, ez dau de ados Udalak proiektuan hainbeste diru gastatzeagaz, «uste dugulako Metro Bilbaok egin behar zuela». Verónica García Denok Baterako zinegotziak, berriz, kezka nagusi bi dauzka: mugikortasuna eta parte-hartzea. «Ez da egon jendaurreko udal-azalpen bat, auzokideen iritzia batzeko». ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service

Car Service

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

PLENTZIA | Hirigintza

Txipio Bidea berregokitu gura du Plentziako Udalak

Inguru horretako saneamendu-sarea berritzeko Ur Partzuergoagaz egingo dituen lanak aprobetxatuz, errepidea egokitu eta oinezkoentzako espaloia ipini gura du Udalak, besteak beste.

IKER RINCON MORENO ►

Txipio Bidearen saneamendu-sarea berritzeko Ur Partzuergoagaz adostutako lanak aprobetxatuta, inguru hori berrurbanizatuko du Plentziako Udalak, errugbi-zelaia eta Musurieta arteko zatian. Beharrak 275 metroko luzera daukan kale horretako tartean izango dira, eta horiek egiteko epemuga hiru hilabetekoa izatea aurreikusita dago, lanak abiatzen direnetik aurrera.

Txipioko errepideak sei metroko zabalera dauka gaur egun, eta inguruan ez dago ezelako espaloirik ezta ondoko bazterrik ere. Hori dela eta, trafiko handirik ez daukan gunea izan arren, segurtasun-arazoak daude bertan oinezkoentzat eta txirrindularientzat. Lanon helburua da hiruna metroko zabalera daukaten errei bi ipintzea errepidean, noranzko bakoitzean bana; aparkalekuak egitea Barrikarako noranzkoan doan erreiarene aldean eta oinezkoentzako espaloia bat egokitzea. Azken hori aparkalekuen ondoko aldean egin gura dute, eta metro biko zabalera edukiko du, autoen, ibiltarien eta txirrindularien segurtasuna bermatu ahal izateko.

Horrez gainera, inguru horretako hiri-zerbitzuetako sareak berregokituko dituzte lanon bitartez. Izan ere, sare elektrikoa, telefonoarena eta argiarena zutoinen bidez antolatuta daude gaur egun, eta asmoa dago espaloia berriaren azpian kokatzeko sare horiek denak, «ahal den luzera handienera». Modu horretan, sare horiei lotuta dauden zutoin denak eremutik kentzea gura dute arduradunek.

Babes-zorunean egingo dira lan denak. Txipio Bideko errepideak inguruan dispertsatuta dauden hainbat etxebizitza konektatzen ditu; era berean, bide horrek erabiltzen ez diren partzela bi zeharkatzen ditu. Arduradunek azaldu dutenez, gune horietan bietan ez dago inolako mantenurik, eta sastrakak dira nagusi. Hori dela eta, Plentziako Udalak eremu horiek egoki-



Gaur egun ez dago espaloirik ezta aparkatzeko leku askorik ere Txipio Bidean. HODEI TORRES

Lanok egiteko epemuga hiru hilabetekoa izango da, beharrak hasten direnetik aurrera. Hala ere, oraindino ez dago zehaztuta noiz hasiko diren.

tzeko proposamena egin zuen, auzokideek erabili ahal izateko, parke moduan. Hala ere, David Crestelo Plentziako alkateak jakinarazi duenez, azkenean ezinezkoa izango da proiektu hori aurrera eraoatea, URA Uraren Euskal Agentziaren oniritzirik ez daukalako, lursail horiek babestutako eremuan daude eta.

UR PARTZUERGAGAZ ELKARLANEAN. Txipio Bidea berregokitzeko lanak Plentziako Udalen eta Ur Partzuergoaren artean adostutako hitzarmen baten ondorio dira. «Oso inportantea da inguruko ur-sarea berriztuko delako. Horrez gainera, beste zerbitzu batzuk egokituko ditugu eta, ondorioz, kale berria izatea ahalbidetuko dugu», iragarri du alkateak. Lanok egiteko aurrekontua 558.000 eurokoa izango da, eta horiek aurrera eraoan ahal izateko 300.000 euroko diru-laguntza eskatu dio Plentziako Udalak Eusko Jaurlaritzari. Oraindino zenbatekoa zein izango den jakiteko zain daudela iragarri du udal-arduradunak. Era berean, Ur Partzuergoaren diru-laguntza ere jasoko dute. ◀

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak • goxokiak
Getxoko kirol portua • 944 915 321

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Pirritx, Porrotx eta Marimotots



GORLIZ | Pailazo-ikuskizuna Euskal Herriko sudur gorri ezagunenek *Borobilean* ikuskizuna aurkeztuko dute zapatu honetan, ekainaren 16an, Ibarreta plazan. Ikuskizuna 18:00etan izango da; sarrera, doan. Plentziako eta Gorkizko Euskara Agenda Bateraturako antolatutako ekitaldietako bat da. *Borobilean* ikuskizuna urteurren biribil batez batera dator; izan ere, Pirritx eta Porrotx pailazoek 30 urte daroatzate eszenarioen gainean. Beste esangura bat ere badauka izenburuak: pailazoak «borobilean» jesarriko dira, «begiak eta bihotzak elkarri begira».

Azokak

Ekainaren 20tik 24ra arte

XIII. Bigarren Eskuko Liburuen Azoka Solidarioa

Algortako kultur etxea | Getxo

Liburuak, aldizkariak, filmak eta bildumak prezio sinbolikoan erosi ahal izango dira. Batutako dirua Ayuda Más gobernuz kanpoko erakundeari emango diote; Huasquicha (Jauja, Perú) nekazari-komunitatean umeentzako hezkuntza-proiektua finantzatzeko erabiliko dute. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Ekainak 14, eguna

Transexualidad infantil y juvenil. No es mi cuerpo, es tu mirada

19:00 | Altzagako udal-liburutegia | Erandio

Chrysallis EH elkarteko kideak diren Bea Severregaz eta Leire Mazariegosegaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Ekainak 15, barikua

Conoce los riesgos de Internet para los niños y niñas

18:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Gaztelaniaz. Doan.

Formación en criptomoneda, el dinero del futuro

19:00 | Sertutxena eraikina | Gorkiz

Jon Andoni Elguezabalegaz. Gaztelaniaz. Doan.

Dantza

Ekainaren 15etik 17ra arte

Getxotar Dantza Eguna

Biotz Alai Abesbatza plaza (Algorta) | Getxo

Hiru egunez, bertoko dantza-eskoletako eta akademiako 200 ikasle batuko dira. Sarrera, doan. Informazio gehiago: getxo.eus

Ekainak 16, zapatua

Dantzari Txiki Eguna

11:00 | Ibarreta plaza | Gorkiz

Aratz Dantza Taldeagaz. Besteak beste, taldeen bilkura, kalejira eta euskal dantzen erakustaldia egongo dira.

Uribe Kostako andreen aurrekua eta erromeria

18:30 | Ontziola plaza | Plentzia

Txilibituak Dantzan taldeak antolatuta.

Erakusketak

Ekainaren 17ra arte

Ur eta lur

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo

Enrike Zubiaren olio-pinturak ikusbide. Doan.

Ekainaren 18tik 24ra arte

Gaude

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo

Adimen-desgaitasuna daukaten pertsonen aldeko elkartegaz. Sarrera, doan.

Novelas negras para la historia

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Lanbro Beltza topaketen barruan. Sarrera, doan.

Jaiak

Ekainaren 15etik 17ra eta 21etik 24ra

San Juan jaiak

Barrika eta Leioa

Informazio gehiago aldizkariaren 8-11 orrialdeetan.

Ekainak 15, barikua

Euskararen Kriseilua ekimenaren amaiera-jaia

17:30 | Antsonekoa parkea | Urduliz

Euskaraz. Sarrera, doan.

Ekainak 16, zapatua

IX. Athletic Eguna

11:00 | Mendiguren plaza (Astrabudua) | Erandio

Athletic Goitiko Taldeak antolatuta. Egun osoan zehar jarduera ugari egongo da. Informazio gehiago aldizkariaren 12. orrialdean.

Musika

Ekainak 14, eguna

Biotz Alai abesbatzaren entzunaldia

17:30-19:15 | Basagoiti, 68 (Algorta) | Getxo

Abeslari berrien bila dabilta.

Ekainak 16, zapatua

Abesbatzen kalejira

12:00 | Herriko kaleetan | Gorkiz

Albokale, Iraunkor eta Lirain taldeakaz.

Jon Arretxe idazlea Arrutiren banda bere liburuaz berbetan



PLENTZIA | Literohitura irakurle-kluba

Euskarazko saioa ekainaren 20an izango da, 20:00etan, Plentziako kasinoan; sarrera, doan.

Sanpedroen eta karmenen egitarauak aurkeztuko dituzte



SOPELA | Jaien aurkezpena Zapatu honetan, ekainaren 16an, San Pedro eta Karmengo festen egitarauak aurkeztuko ditu Sopelako Jai Batzordeak. Hitzordua 20:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean; sarrera, doan. Aurkezpenaren ostean, *Miss karaoke* ikuskizuna egongo da, 16 urtetik gorakoentzat.

Kantaldia: Euskarazko kantu zahar eta berriak

20:00 | Udal-pilotalekuko taberna | Berango

Unai abeslariagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

Ekainak 17, domeka

Kontzertua: Josu eta Unai

13:00 | Motagane jatetxea | Erandio

Sarrera, doan.

XI. Getxotar Abesbatzen Eguna

18:00 | Biotz Alai plaza (Algorta) | Getxo

Kimetz, Alai, Erromoko Kantariak, Andrés Isasi, Zozoak, Irutasun, Biotz Alai, Areetxo, Itxartu, Eskuz Esku eta Ondarreta koruek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

Inprobisazio-saioa

19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo

Andrés Isasi Musika Eskolako jazz-taldeagaz. Sarrera, doan.

Zinema

Ekainak 16, zapatua

Beyond Beyond

18:00 | Kultur etxea | Urduliz

Filma 12 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

ander deuna
i k a s t o l a

Haur hezkuntzatik batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA
946 760 266 · 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

MARITXU TEILAGORRI TXOSNA-BATZORDEA | San Juan jaiak

«San Juan gaua magikoago egin gura dugu akelarreagaz»

Orain dela hoge urte inguruko ohituragaz segituz, akelarrea antzeztuko du Maritxu Teilagorri Txosna-Batzordeak San Juan bezperako gauean, ekainaren 23an. Hitzordua gauerdian ipini dute, txosnagunean. «Danok daukagu sorgina edo aztia barruan», diote.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIA: EIDER ITURRIAGA

Gero eta jende gehiago jofaten da Leioako akelarreak gozatze-
ra, «batzuk leioztarrak eta beste batzuk kanpokoak», Mari-
txu Teilagorri taldeko kideek azaldu dutenez. Segurtasun-
taldea daukate sua eta jendea kontrolpean izateko, baina
horrek ez du esan gura jendeak ezin dezakeenik parte hartu. «Denok
parte garela sentiarazteko ikuskizuna da», aipatu dutenez.

Zelan bururatu zitzaizuen akelarrea egitea? Orain dela hoge bat urte, AEK-ko ikasle- eta irakasle-talde bat barnetegi batera joan zen. Han Gipuzkoako Goierriko euskal filologo batek topo egin zuten: azaldu zien bere amama sorgina zela eta akelarreetan parte hartzen zuela. Bera egonda zela horietan, baina normalean kanpoko jendea-ri ez ziotela ikusten uzten. Bertan egiten ziren erritoak eta esamoldeak ere kontatu zizkien. Ilusioz beteta, Mendibile gaztetxea zenean elkartu eta apuntatuta zeuzkaten esaldiakaz eta entzundako dena-
gaz gidoia osatu zuten, eta egiten animatu ziren. Josu Mentxaka eta Gentzane Fernandez izan ziren horren lekukoak. Aratuste batzuetan egin zuten lehendabiziko aldiz, herrian bertan. Jende askok parte hartzen zuela eta polita zela ikusita, San Juan bezperan egiten animatu ziren, baina txosnagunean. Ordutik hamazazpi urte inguru pa-satu dira.

Zer irudikatzen duzue akelarrearen bitartez? Batez ere solstizio berria datorrela ospatzen dugu, gau magiko horretan. Sorginak, aztiak eta gainontzeko pertsonaia mitologikoak elkartzen dira; akerrari dei egiten diogu edabe magikoagaz arazo guztiak ahaztuz, elkarre-gaz gozatuz... Inkisizioa etortzen den arte. Euskal Herria mehatxa-tzen duten sinboloz beteta datozen pertsonaia ilun horiek herritarrek dantzatutako *Banangoa*-ren bidez botatzen ditugu gure artetik, jaia zapuzten ez dutela ospatuz. Hala ere, Goierriko filologo hark esan zi-gun akelarreak ez daukala amaierarik, sorginek ez dutelako uzten



Gaur egun, txosnagunean egiten dute Leioako akelarrea.

Akelarrea

Ekainak 23, zapatua

18:00 Entsegua, txosnagunean.

00:00 Akelarrea, txosnagunean.

Antzezkiak baina lehenago (22:30) eta ostean (01:00), Trikitio taldeak giroa du dantzaldia.

amaierara arte geratzen. Beraz, ez dakigu zelan amaitzen ziren ake-larre haiek... Leioakoa norberak amaitzen du.

Herritarrek ere akelarrean parte har dezakete? Bai noski! Hori da gure oinarria eta gogo: akelarre parte-hartzailea. Zati asko gure per-sonaiek egiten dute (Mari, Sorgin Nagusia, Aztia, Akerra eta Herria), baina jendea gogoz egoten da ahal duenean dantzan hasteko. Gu, po-zik, ez baita ikusteko espektakulu bat, baizik eta denok parte garela sentiarazteko.... Denok daukagu gure sorgin edo aztia barruan!

Aurrera segitzeko gogo daukazu? Leioaztarrontzat gau magikoa da San Juan bezperakoa; gero eta jende gehiago gerturatzen da ake-larre ikustera, eta horren parte izatera ere bai. Gainera, taldean jende berria sartzen ari da gutxika; hasierako taldetik oso gutxi ge-ratzen gara. Bazen garaia erreleboa hartzeko! Hala ere, akelarreko parte izan garenok beti ibiliko gara horretan! Ezin dugu utzi.

Zer da gehien asetzen zaituztena akelarrea eginez? Gau magikoa are magikoago bihurtzea; gau batez bada ere bakoitzak egiten duen per-sonaia dela sentitzea. ◀



BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Egitaraua

Ekainak 15, barikua

- 19:00** III. San Juan Goxua Esku-pilota eta Pala Txapelketa, udaletxeko frontoian.
22:00 Aldats elektrotxaranga, Sakonetan.
22:00 Pop-rock lehiaketako finalisten kontzertua, Ikea Barri plazan.

Ekainak 16, zapatua

- 09:00** Arrantza-txapelketa, Lertutxe urtegi.
10:00 Antzinako Eguna, Boulevarden. Sukalki-txapelketa izen-ematea. Antzinako Eguneako horma-irudia.
11:00 Kirol-eskolen erakustaldia, Sakonetan.
11:00 Padel-txapelketa, Torresolon.
11:30 Euskal zumba, Boulevarden.
13:00 Waterpolo-txapelketa, Sakonetan.
13:00 Antzinako Eguneako jolasak, Boulevarden.
15:00 Antzinako Eguneako bazkaria eta bingoa, Boulevarden.
18:00 Irristaketa-erakustaldia, Kandelazubieta kiroldegian.
19:00 Dantza-poteo musikatua.
23:00 Dantzaldia Oxabigaz, Ikea Barrin.

Ekainak 17, domeka

- 10:00** *Sakoneta Biking*. Boulevarden.
10:00 Leioako Xake Topaketak, Euskal Etxeen plazan.
12:00 Leioako Udalaren XVIII. Jota Txapelketa, Ikea Barri plazan.

Ekainak 21, eguena

- 11:30** Hirugarren adinekoentzako dantzaldia, Ikea Barri plazan.
19:00 Txupinazoa eta pregoia, Mari Pepa eta Arlotegaz, udaletxean. Kuadrillen jaitsiera Ikaztegiaino.
19:30 Oihan Vega Dja, Ikaztegiaino.
21:00 Txupina eta txosnen irekiera.
21:30 Sahieski-jana, txosnagunean.
23:00 The Dirty Socks taldearen kontzertua, txosnagunean.

- 23:00** Leioa Comedy Night bakarriketak, Aldapa entzunaretoan.
23:30 Dantzaldia Akerbeltz taldeagaz, Ikaztegiaino.
00:00 Kuadrillen musika, txosnagunean.

Ekainak 22, barikua

- 12:00** Umeen jolasak, Errekalde plazan.
13:00 Bitsa-festa, Euskal Etxeen plazan.
17:00 Umeen jolasak, Errekalde plazan.
18:00 Kuadrillen *Azeriaren ehiza* (txikiak) Pinosolon.
18:00 Kuadrillen arteko *Azeriaren ehiza* (ertainak), Udondoko bulebarrean.
19:00 Kuadrillen arteko *Azeriaren ehiza* (nagusiak), J.R. Aketxe plazan.
19:00 *Sardiña bakalau* umeentzako ikuskizuna, Euskal Etxeen plazan.
19:30 Los Cinco Bilbainos, Ikea Barri plazan.
20:00 Euskal Kirolaren Gala, Boulevarden.
20:00 Kuadrillen arteko playback-ak, Kandelazubietan.
21:00 Sardina-jana, txosnagunean.
23:00 *The primitals* (Yllana), ikuskizuna, Aldapa entzunaretoan.
23:30 Def con Dos taldea, txosnagunean.
23:30 Semilla Negra eta Runaway taldeak, Ikaztegiaino.
01:00 Guda Dantza taldea, txosnagunean.

Ekainak 23, zapatua

- 10:00** Zoaz eskalatza, Boulevardera.
10:30 Kuadrillen arteko tortillen eta sandwichen sariketak, Boulevarden.
10:30 Eskubaloit-partida, Sakonetan.
11:00 Kuadrillen herri-kirolak, Bolevarden.
12:00 Umeen ekintzak, Errekalde plazan.
12:00 *Ikusi (Leioa) Makusi*, Ikea Barrin. Familien margo-tailerra.
13:00 Bitsa-festa, Euskal Etxeen Plaza.
14:00 Kuadrillen sokatira, Boulevarden.
15:00 Kuadrillen bazkaria, Boulevarden.
16:30 Eskalada irekia, Boulevarden.
17:00 Umeen ekintzak, Errekalde plazan.

- 17:30** Eskupilota-partidak, Sakonetan.
18:00 San Juan gaueko akelarrearen entsegu, txosnagunean.
19:00 *Trakamatraka* umeen ikuskizuna, Euskal Etxeen plazan.
19:00 Aldats txaranga, txosnagunean.
19:30 Sonakay taldea, Ikea Barri plazan.
21:00 Xabi Aburruzaga Trio eta Andoni Aresti Dantza Eskola, Aldapa entzunaretoan.
22:30 Dantzaldia Trikiogaz, txosnagunean.



INFO+
QR hau eskaneatu egitarau osoa irakurtzeko

- 23:00** San Juan gaueko ikuskizuna, Hortzmuga taldeagaz, Boulevarden.
23:45 San Juan sua, udaletxean.
00:00 Akelarrea, txosnagunean.
00:15 Txokolate-edana, J.R. Aketxe plazan.
00:30 Freedomia taldea, Ikaztegiaino.
01:00 Dantzaldia Trikiogaz, txosnagunean.

Ekainak 24, domeka

- 11:00** Meza, San Juan Bataiatzailearen elizan.
12:00 Elizaurreko aurrekua, udaletxean.
12:00 Umeen ekintzak, Errekalde plazan.
12:00 Kuadrillen arteko sokatira-txapelketa (txikiak eta ertainak), Aldapa entzunaretoan.
12:00 Kuadrillen arteko umeentzako ekintzak, Aldapa entzunaretoan.
13:00 Bitsa-festa, Euskal Etxeen plazan.
13:00 Bertsolariak, Boulevarden: Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi, Jone Uria eta Paule Loizaga.
13:30 Kuadrillen arteko erlojupeko igoera (txikiak eta ertainak), Aldapabarrenan.
17:00 Umeentzako *Zirkoazurre* tailerra, Euskal Etxeen plazan.
17:00 Umeen ekintzak, Errekalde plazan.
18:00 *Roklaunrola* umeentzako ikuskizuna, txosnagunean.
18:00 Dantza-erakustaldia eta erromeria, Gure Ohiturak dantza-taldeagaz, Boulevarden.
18:00 Kuadrillen arteko *slackline*-a (nagusiak), Aldapa parkean.
19:00 Umeentzako *Zirkoazurre* ikuskizuna, Euskal Etxeen plazan.
19:30 Dantzaldia, Trío Maran taldeagaz, Ikea Barri plazan.
19:30 Larrain Dantza, Boulevarden.
19:30 Txokolate-edana, txosnagunean.
20:00 Txistorrada, Boulevarden.
21:00 Kuadrillen sari-banaketa, Boulevarden.
22:30 Azken traka eta Jaien akabua, Boulevarden.



Yon are the revolution...

NORTASUN HANDIKO BIXIAK

FLOVAR
Bitxigileak • Joyeros

Erandio Ibarra, 2 Leioa Luis Bilbao Libano, 14



URONDO
TABAKO DENDA

GORA LEIOAKO JAIK!

SABINO ARANA 67, LEIOA
944 649 233



INDARLAN
OBRAS Y EVENTOS S.L.L.

Gure bezeroen eskura honakoak jartzen ditugu:

EKITALDIETAN: komuna-eramangariak, modulu aurrefabrikatuak, txoznak, hesiak (itxiera, izuaren aurkakoak, oinezkoentzakoak...)

ERAIKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK:

- Modulu aurrefabrikatuak (komunak, bulegoak, aldagelak), eskorak, segurtasun elementuak, itxiera-hesiak.
- Komuna automatikoak eta mantentze-lan berezituak.

Bermeo bidea, 5. Mungia. 94 471 14 41 - indarlan@indarlan.biz



K.R.K.B.I.
herriko taberna

Ondo pasa jaietan!

Sabino Arana 82, behea
Ellexalde-Leioa
944 802 655



PELUQUERIA Kati

ile-apaindegia

Erreserba egizu!

☎ 946 410 486
Artatzagane 35 • Leioa
f KATIPeluqueria

BARRIKAKO JAI-BATZORDEA | San Juan jaiak

«Auzokideek ere jaietan parte har dezaten gura dugu»

IKER RINCON MORENO ▶

Ekainaren 21ean hasi eta domekara arte, 24ra arte, iraungo dute San Juan jaiak, Barrikan. Horrenbestez, adin, gustu eta zaletasun guztietako lagunei zuzendutako ekitaldiak egongo dira lau egunean zehar, jai-batzordeko kideek antolatuta. Hala ere, aurreko aste-akabuan ere zer egiterik egongo da, besteak beste I. Itsas Merkatuan, argazkilaritza-rallian, herri-ibilaldian eta aire zabaleko pintura lehiaketan.

Zelan doaz festak antolatzeko lanak? Apur bat zoratuta gaude, azken orduko aldaketak egon direlako aurretiko lanak koordinatu behar dituen taldean. Hala ere, gure aldetik dena dago prest. Aldez aurretik lan handia egin dugu, baina oraindino azken ukituak ematen gabilta, hala nola karpak, argiak eta txosnaren kontu denak.

Zenbat lagunek osatzen duzue jai-batzordea? Bederatzi gizon-emakumek osatzen dugu taldea. Hala ere, badago laguntzen duen jende asko eta udalerriko hainbat elkartek ere hainbat aktibitateetan laguntzen du, baita ekimen batzuk antolatu ere.

Berritasunik egongo da aurten jaietan? Aurreko urteetako ildo berdina jarraitu dugu aurten ere, badakigulako harrera ona due-



Udalerriko bederatzi gizon-emakumek osatzen dute gaur egun Barrikako jai batzordea. IKER RINCON

Pala-txapelketa indarra hartzen doa

Urteak daroztate Barrikako jaietan pala-txapelketa antolatzen eta, iragarri dutenez, urtez urte norgehiagoka hori indarra hartzen ari da, emakumezkoen zein gizonezkoen kategorietan. Berbarako, iaz gizonezko 20 bikote, 8 bikote misto eta emakumeen lau bikote egon ziren; aurten, aldiz, mutilen 36 bikotek, 25 mistok eta emakumeen 12 taldek parte hartuko dute, eskualdeko txoko denetatik etorrira.

lako horrek. Adin denentzako ekitaldiak antolatuko ditugu, eta jatekoa nabarmenduko da denaren gainetik. Gainera, aurten Udalak Itsas Merkaturia antolatu du aurrenekoz.

Zer esango zenikete jendeari Barrikara jaietara hurbiltzeko? Goserik ez duela pasako eta oso ondo pasatuko duela, lagunartean eta lasaitasun osoz. Auzokideei ere dei egiten diegu jaietan parte hartzera, jai parte-hartzaileak gura ditugulako.

Nor gonbidatu duzue San Juan gauerako? Aurten Zirkozaurre elkarteak dinamizatuko du gaua, baita sua piztu ere. Suan oinarritutako ikuskizuna egingo dute, malabareakaz eta bihurrikariakaz, besteak beste. Ea eguraldiak laguntzen duen. ◀

KONTZERTUA

JORGE DREXLER
SALVAVIDAS DE HIELO 2018

EKAINAK 22 OSTIRALA 21:00

GETXO BIOTZ ALAI ABESBATZA PLAZA (ALGORTA)
SARRERAK: 25 € TICKETS.KUTXABANK.ES
+ INFO: WWW.JORGEDREXLER.COM

Getxo bar erantsi Getxo bar erantsi

NAZIOARTETIKO JAIALDIA FESTIVAL INTERNACIONAL

42 04/08 UZTAILA JULIO

GETXO JAZZ 2018

21.00 BIOTZ ALAI ABESBATZA PLAZA

SARRERA SALMENTA / VENTA DE ENTRADAS

k GETXO KUTXABANK.ES

GETXO KULTUR ETXEA ALBIZ - VILLAMONTA, 48 1040 - Santa Eugenia, 1

T. 944 914 080 kulturetxea@getxo.eus www.getxo.eus

ANTOLATZAILAK / ORGANIZADORES

Getxo bar erantsi Bizkaia bar erantsi inaem bar erantsi bbk bar erantsi

EUSKADI - BASQUE COUNTRY

EL CORREO

INSALUS

ORTIGA MOTOR

Egitaraua

Ekainak 15-16-17

Egunean zehar I. Barrikako Itsas Merkatua.

Ekainak 16, zapatua

17:00 Sokatira txapelketa. (Pisaketa 14:30ean).

Ekainak 17, domeka

08:30-15:00 IV. Argazkilaritza Rally digitala. Izen-ematea doakoa izango da, udal kulturgunean.

09:00-12:30 VI. Ibilaldi herrikoia. Ibilaldi luzea: 13 kilometro. Irteera 09:00etan, Txintxilandia plazatik. Ibilaldi laburra: 3,5 kilometro. Irteera 11:00etan, Txintxilandia plazatik. Izen-ematea doan, ekainaren 17ra arte, udal kulturgunean.

12:00-14:00 VI. Aire zabaleko margolarien lehiaketa. 0 eta 12 urte arteko umeek parte hartu ahal izango dute norgehiagokan.

Ekainak 21, eguena

19:00 Txupinaren jaurtiketa eta pregoiaren irakurketa, Txintxilandia plazan.

20:00 Sardinada herrikoia eta sagardo-festa.

18:00-22:00 Familia-arteko disko-festa, Disko Arima Erea taldeagaz.

Ekainak 22, barikua

16:30-19:30 VIII. Multikirol jardunaldia, Barrikako piragua taldearen, Abaroa Tenis Taldearen eta Barrikako futbol-eskolaren eskumenez.

17:00-19:00 Zirko-tailerra.

18:00 Billar-txapelketa, Jubibarrikaren eskumenez. Nagusien Etxean.

19:15-20:00 Kale-antzerkia, Vademekum.

20:00 Saiheski-jana.

21:00 Guda Dantza eta Garilak 26 taldeen kontzertuak.



Adin denen gozamenarako ekitaldiak antolatu dituzte Barrikako San Juan jaietan.

21:00-01:00 V. Emakumezkoen gaueko padel- eta tenis- txapelketa, Barrikako Tenis taldearen eskumenez. Izen-ematea: Abaroa Tenis taldearen bitartez.

Ekainak 23, zapatua

Ordua zehazteke Barrikako VIII. Pala txapelketaren finala

11:30-14:00 XLII. Sukalki txapelketa. Izen-emateak: 11:00etan Txintxilandia plazan.

11:30-14:00 Umeen Eguna.

15:00 Sukalki txapelketaren sari-banaketa.

17:00-19:00 Mus arin txapelketa, Jubibarrikaren eskumenez. Nagusien etxean.

18:00-19:00 Skratx antzerki-emanaldia.

18:30 Dantza-plaza, Aikoren eskumenez.

21:00-01:00 IV. Gizonezkoen gaueko padel-

eta tenis- txapelketa.

21:30 Tai-xi erakustaldia.

22:00 Silexagaz sua egiten ikasteko erakustaldia.

22:30-23:30 San Juan sua ikuskizuna, Zirkozaurre akelarreagaz.

23:30 Roca&Rollo taldearen kontzertua.

23:30 Txokolate-dastaketa.

Ekainak 24, domeka

10:00 XXIV. Nekazaritza eta Artisautza azoka.

11:00 Meza Nagusia.

11:30-13:00 Bertsolariak azokan zehar, Josu Landeta eta Aritz Landeta bertsolariakaz.

11:30-14:00 Haurrentzako parkea, puzgarriak.

12:00 San Juan pala-txapelketa,

profesionalak afizionatuen aurka.

12:00-12:30 Barrikako Aita Gotzon abesbatza eta Sopelako Lagun Artean abesbatzaren kontzertua.

13:00-13:30 Barrikako euskal dantza-taldea eta trikitilariak, Emakumeen Hitza Elkartearen eskumenez.

14:00 Barazki-txapelketako sari-banaketa, udaletxeko plazan.

15:00 Herri-bazkaria. Nagusiek 15 euro eta umeek 10 euro. Tikitak udal-liburutegian eros daitezke, ekainaren 20ra arte, 16:30etik 20:30era.

16:00-18:00 Eurodantza.

18:00 Korri, Xalto eta Brinko pailazoak.

18:00 Barrikako harri-jasoketa txapelketa, Meñakoz hondartzatik ekarritako harriagaz.

J.A. AGIRRE EUSKALTEGIA

Heldu euskarari!



UDAKO IKASTAROAK

16 URTETIK GORAKOENTZAT
PARA MAYORES DE 16 AÑOS

UZTAILA ETA IRAILA JULIO Y SEPTIEMBRE

Matrikula zabalik!

Ekainaren 1etik 27ra
Del 1 al 27 de junio

Azterketa ofizialak prestatzeko, 5 ordu egunero!

UDAN ERE EUSKARAZ!

6 -16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA JÓVENES DE 6 -16 AÑOS

Ikastaroa noiz?

Uztailaren 2tik 27ra arte,
9:00etatik 12:00etara

Del 2 al 27 de Julio,
de 9:00 a 12:00h.

Bulego ordutegia:
Horario de oficina:
09:30 - 17:00

Algortako etorbidea 104
48991- Algorta (Getxo)

944 606 671

j.a.agirre@euskalnet.net
idazkaritza@jagirre.eus

www.jagirre.net



ATHLETIC GOITIKO TALDEA | Athletic Eguneko antolatzaileak

«Auzokoakaz egun bat gozatzeko da Athletic Eguna»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Athletic Eguna antolatuko du Astrabuduko Goitiko zale-taldeak zapatuan, ekainaren 16an. Carlos González (1978, Barakaldo) presidenteorde astrabuduarrek eman du ekitaldiaren eta peñaren berri.

Zer egongo da Athletic Egunean? Denetarik: umeentzako puzgarriak, txosna eta pintxo-potea, Athleticceko argazki-saioa, herri-bazkaria... Paella-janean 150-170 pertsona batu ohi gara, baina egun osoan 250-300 lagun egoten gara. Bazkalostean, mus-, tute- eta futbolin-sariketak eta puzgarriak egongo dira aukeran. Gainera, aurretik ateratako argazkien erakusketa ipiniko dugu. Amaitzeko, inguruko taldeen kontzertua edukiko dugu. Askotariko eguna da: emakumezkoak, gizonezkoak, 70 urteko jendea edo besoetako umeak topa daitezke; giro oso ona dago. Ondo pasatzen dugu, horregatik antolatzen dugu.


Athletic Egunean parte hartzeko izena eman beharra dago? Egun osorako ez. Komeni da bazkariko txartelak aurretik eskuratzea; zapatura arte itxaronez gero, arriskua dago amaitzeko. Hiru tabernatan ipini ditugu txartelak: Stop-en, Primera Línean eta Beltzez pubean, zazpi euroan. Txartelek barne hartzen dituzte bazkaria, edaria, azkenburua eta kafea. Soberan geratuz gero, zapatuan goizean ere salgai ipiniko ditugu; arazorik ez da egoten, baina aurretik amaituz gero, kito.

Zein da helburua? Zale-taldea sortu genuenean, asmoa ez zen Athleticen bidaietara joatea soilik, auzoan peña gehiago dagoelako. Herrian gauza herrikoiak egin gura genituen. Astrabuduak bizitza handia dauka, baina gehiago eman gura diogu, ahal bada. Auzokoakaz gozatzeko egun bat egitea da helburua. Athleticen logoa ipintzen diogu baina futbol-eduki gutxi dauka egunak: futbolin-lehiaketa eta giza futbolin-puzgarria. Batez ere, egunak balio du batzeko hemengo zale-taldeetako kideak, beste peñetatik etorri ohi direnak eta neska-mutilak.



Urtean jarduera nagusi bi antolatzen ditu Goitikok: Athletic Eguna eta Nekazaritza Azoka Ekologikoa. HODEI TORRES

IX. Athletic Eguna Ekainaren 16an, Mendiguren plaza (Astrabudua)



11:00 Puzgarriak, 14:00ak arte.
11:30 Txosna irekitzea eta pintxo-potea.
12:00 Talde-argazkiak ateratzea.
15:00 Herri-bazkaria: paella.
17:00 Argazkiak erakutsi eta ematea.
17:00 Mus- eta tute-txapelketak.
17:00 Puzgarriak, 19:00ak arte.
18:00 Helduentzako futbolin-txapelketa.
20:00 Kontzertua: Hey Bulldog taldea.
22:00 Kontzertua: Blue Medussa taldea.

Garrantzitsua da gaztetxoek parte hartzea eta giro hori ikustea. Beharbada etorkizunean erreleboa hartuko dute.

Yeray Álvarez da aurtengo protagonista. Horregaz arazoak eduki ditugu aurretik, jendea nahasten delako. Yeray ez da egongo Astrabuduan. Kartelean ipintzen dugu urteko pertsonarik erreferentzialena, dena delakoagatik, ez etorriko delako. Berbarako, San Mameseko arkua ipini genuen behin. Aurten ez da egon agur esan duen jokalaria garrantzitsurik, denboraldia nahiko kaskarra izan da eta, aukeran, Yerayri egin diogu omenaldi txiki bat, [minbizia dela eta] sufritu duenagatik.

Zelan sortu zen Goitiko? Modu bitxian. Peña kuadrillan muntatu genuen. Gutako bat zebilen Katalunian bizitzen. Behin, etorri eta Akarlandan bazkaldu genuen. Berak galdetu zigun: «Zertan geratu zen egin behar genuen peñarena?». Besteok: «Zertaz zabilta?». Eta hark: «Egingo genuela esan genuen». Elkarrigegiratu genion eta erabaki genuen: «Esan bagenuen, egin egingo dugu!». Egun berean adostu genituen izena, logoa eta zuzendaritza, eta aste bat beranduago Jaurilaritzan bete genituen paperak. Handik urte batera 70 bazkide ginen, kristorena. Elkarteari Goitiko ipini genion, lagun batek izandako baserriaren izena. Goitiko Axpurun egon zen, beranduago auzora jaitsi, eta saihezbidea egiteko eraitsi zuten. Omenaldia egin genion beheko baserriari, txikiak ginela han jokatzen genuelako. Izen herrikoia gura genuen, ez jokalariren batena. ◀

JUAN MARI

Harategia

Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

SUP | Munduko Paddle Liga

Barrikatik mundura, arraunagaz

Aste-akabu honetan Ibaizabalgo uretan jokatu da Bilboko SUP txapelketa, Munduko Paddle Ligarako eta Europako Tourrerako puntuagarria. Proba horietarako prestatzen dabiltza eskualdeko hainbat surflari, Barrikan.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Stand Up Paddle Surf, arraun-surfa edo SUP surf-modalitatea oso modan dago azken urteotan. Uribe Kostan ere bai. Hala, zaletu eta trebatu ostean, goi-mailako kirolariak izatera heldu dira eskualdeko surflari bi: Alazne Aurrekoetxea Alonso eta Oihan Aizpuru Aldatz gazte sopeloztarrak. Aurrekoetxea Europako txapeldunordea da olatueto modalitatean, eta Aizpuru, berriz, txapelduna.

Aure Medina Amorrortu ere surflaria da, sopeloztarra, eta SUPean dabil. Azaldu duenez, «oso gogor» dabiltza beharrean azken urteotan Uribe Kostako kirolari batzuk. Barrikan osatu dute taldea, hango Barrika Surf Campen abaroan. Medinak dioenez, SUPeko lasterketa-modalitatean «teknikoki hobetzen» ibili dira bera, Lurta Nikolas Ezkurdia barrikoztarra, Txema Landa leioaztarra eta Barrikako surf- eta sup-eskolako harrobia. Izan ere, Barrikako taldeak hiru urte darozta «gazteen artean supa eta surfa bultzatzen oso emaitza onakaz, batik bat ondo irakasteko konpromisoagaz eta itsasoarekiko balioak lantzen». Bertako gazteen artean aipatu ditu June Ormaetxe Sauto galdakaoztarra, Aizpuru eta Aurrekoetxea.

Aizpuru gaur egun Central SUP taldean dabil lehiatzen, baina eurekaz entrenatzen segitzen du. «Alazne Aurrekoetxea egon zen gugaz lasterketa-SUPen, baina daborduko olatuetoan bakarrik ibiltzen da eta aspalditik nago ikusi barik», aitortu du Medinak. Kirolari gaztea Indonesian ibili da azken boladan, kiroleko arropa-marka batentzat publizitate-lanak egiten.

IBAIZABAL SURFLARIZ BETETA. Datorren zapatuko Bilboko SUP Txapelketan elite-mailako profesionalakaz lehiatzea erronkatzat daukate Barrikako taldeko kideek. Proba horren seigarren edizioa puntuagarria izango da Europako Tourrerako eta Munduko Paddle Ligarako. Horrenbestez, Ibaizabalen «Estatuko eta nazioarteko rider onenek» parte hartuko dutela agindu dute antolatzaileek. Iaz, Ormaetxek irabazi zuen 16 urtez azpiko maila. Elitean, oster, 12., 32., 36., eta 44. pos-



Medinak uste du Oihan Aizpuruk emaitza ona lortuko duela Bilbon. © FESURF



Barrika Sup eta Surf Taldeko beteranoak

Lurta Nikolas, Aure Medina eta Txema Landa (argazkian, ezkerretik eskumara) taldeko beteranoak dira, 48, 45 eta 43 urteakaz, hurrenez hurren.

tuetan geratu ziren Nikolas, Landa, Medina eta Aizpuru, hurrenez hurren. Aurten, Aizpuru hogeit onenen artean geratzea eta besteok puntuak batzea izango da Barrikatik Ibaizabalera eroango duten helburua, Medinak kontatu duenez. Zapatuan, 17:00etatik aurrera sartuko dira uretan, Guggenheim museoa- ren aurrean. Orduan egongo da eskualdeko kirolariak ikusi eta animatzeko aukera. Dena den, Bilbokoa ez da eskualdeko surflariak parte hartzen dabiltzan Europako Tourreko proba bakarra: joan den ekainaren 2an Tabarca irlan egon ziren, Alacanten; eta joan den zapatuan, berriz, Donostian. Bilbokoaren ostean Landetara joko dute, ekainaren 23an eta 24an, Sòrts e Òssagör herrira, Uribe Kostatik gertuko azken proba. Landetako lasterketa Europako Tourrerako ez ezik, Munduko paddle Ligarako ere puntuagarria izango da. ◀

Udako Eskaintza 2018



aek udako
plazer txikiak

pequeños placeres de verano

URIBE KOSTAKO AEK

**UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK**

Leioa 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/

EUSKALTEGIAK
ONLINE IKASTAROK ERE BAI!

2 ASTEKO BARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 · 946 464 000
www.aek.eus

Uribe Kostako 4.000tik gora lagunek parte hartu zuten giza katean

Gure Esku Dagok antolatuta, Uribe Kostako 4.179 lagunek hamar kilometroko giza katea osatu zuten domekan, ekainaren 10ean, Altubén.

Argazkiak: HIRUKA / GED / G. DE LA MAZA



LEMOIZ | Txapel Reggae jaialdia

Emakumeak nagusi izango dira aurtengo kontzertuetan

Armintzako Jai Batzordeak emakumezkoen presentzia areagotzearen aldeko apustua egin du aurtengo; horrela, BioBizz Portua Stageko kontzertuen %100 emakumeen esku egongo da. Uztailaren 14an hasiko da jaialdia.

GORLIZ | TAO zerbitzua

Hainbat aldaketa eduki ditu sistemak

Azken egunotako kexak direla eta, Udalak hainbat moldaketa egitea onartu du ordutegietan eta bonuen banaketan, besteak beste.



GETXO | Preso politikoak

Endika Lejarzegi preso algortarra aske gelditu da, espetxean 15 urte pasa ostean. Senideak eta lagunak zain zeuzkan irtetea.

URIBE KOSTA | Hondartzetako ura

Eskualdeko hondartza ia denetako ura ez da ona bainatzeko, azken euriteen eraginez kutsadura fekalaren mugak gainditu direlako.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Getxoko Kultur Etxeari esker, Getxo Blues jaialdiaz gozatzeko sarrerak dauzkagu

Uztailaren 19tik 22ra bitartean
egingo den jaialdiaz gozatzeko sarrera
bikoitza lortu gura baduzu, uztailaren
10a (martitzena) baino lehenago
bidali erantzuna, zure izen-deiturak
eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus
edo 944 911 337.



Ekaineko saria



Udako oporraldian jateko pizza eta
edari bi, Lemoizko Batzokiari esker

**Lemoizko Batzokiari esker, sari hori zozkatuko
dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.**

Zozketan parte hartzeko, bidali ekainaren 30a (zapatua) baino lehenago,
zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako
euskarazko komunikazio-taldearen
bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

	6			7	2	4		1
	2							3
					3		6	
				9	5			
	3		7	4				
	1							6
		3		1				
	7							
8			6		4	2	1	

				6	7	3		5
9	3		4		5	7		
	6				9			1
					3	8		7
8				4				
3				2	6			
6		9			4	1		
				7	8			3
						5		

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

4	9	5	2	6	1	9	3	8	7
3	2	6	8	7	9	4	5	1	2
8	1	7	4	3	5	9	2	6	3
6	5	4	9	2	8	1	7	3	5
2	3	9	1	4	7	5	6	8	2
7	1	8	3	5	6	9	4	2	7
1	4	2	6	8	3	7	5	9	4
9	8	7	5	1	4	2	3	6	8
5	6	3	7	2	6	1	8	4	9

7	1	2	4	3	9	6	5	8	2
5	4	3	6	8	2	9	7	1	5
6	8	9	7	1	5	3	4	2	6
9	6	5	8	2	3	7	1	4	5
8	2	1	9	4	7	5	3	6	8
4	3	7	5	9	1	2	6	8	3
2	9	6	3	5	4	1	7	9	5
3	7	6	1	9	8	4	5	2	7
5	1	4	2	7	9	6	8	3	1

Hitza emanda

Zentsura

*Hedabideak omen
denon zerbitzura;
baina azkenaldian
bueltan da zentsura;
ta honek du txarrera
joango den itxura...
Alde handia dago
zentsutik zentzura!*



**ARRATE
ILLARO
ETXEBARRIA**
Getxo

ALBE
Algortako
Bertsolari
Eskola

Mundukatuak Quito

«Aniztasuna da hiriaren ezaugarri nagusietakoa»



Carolina González

Nongoa
Quito (Ekuador).


Adina
35 urte.

Zertan dabil
Jatetxe batean lanean.

Ikasketak
Derrigorrezko hezkuntza.

Noiz heldu zinen?
2002ko otsailean.

Noiz arte berton?
Betiko.



Lurraldea
Ekuadorreko Errepublika.

Azalera
283.561 km².

Hiria
Quito.

Biztanleria
2.644.145 (2017).

Hizkuntzak
Gaztelania da herrialdeko hizkuntza ofizial bakarra, eta eskualdean ekuadortar dialektoa da nagusi. Bertako jatorrizko hizkuntzen artean, hamar batek irauten dute oraindik Ekuadorren; horietatik kitxua da hiztun gehien daukana. Horrez gain, badaude ingelesez ere moldatzen diren asko.

Moneta
AEBetako dolarra.

TESTUA: KERMAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: CAYAMBE

Lana aurkitu eta bizi-kalitatea hobetu guran etorri zen Euskal Herrira Carolina González Salas. Berton bizitzera egokitzea ez zaio batere kostatu, esan digunez. Zerbitzari dabil Algortako Sagardotegian, eta seme-alabek Barakaldoko Institutuan ikasten dute, D ereduan.

Quiton eman izan zituen bizitzako lehen urteak eta nerabezaroa, eta herrialdeaz harro berba egin du: «Ekuadorren hamaika bazter daukazu bisitatzeko: ur-jauziak, mendiak, basoak, hondartzak... Eta Quito ere aniztasuna da ezaugarrietako bat». *La Virgen de El panecillo* eta *Ciudad Mitad del Mundo*, Carolinaren obra gustukoena ez ezik, hiriburura joaten diren turisten helmuga kuttunenak ere badira. Hiriaren erdigunean batetik bestera joatea arazoa ez dela azaldu digu Gonzálezek; Ekuadorreko beste txoko batera mugitu gura izanez gero, treneg egiteko gomendatu digu.

Gogoan dauka Quito askotariko musika entzun daitekeela: «Musika folklorikoak oihartzun handia du hirian, tresna asko jo-

tzen dituzte bertan, Europan hain ezagunak ez direnak; mandolina, okarina eta *bomba*, besteak beste. Baina hori ez da genero bakarra. Azken urteetan, berbarako, Hego Amerikan sortutako reggaetoiak eragin handia eduki du munduan. Ni, ordea, Rocío Jurado entzuten hezi ninduten gurasoek». Bertoko janari tipikoak ere ugariak dira. *Hornado* delakoa nabarmendu du Gonzálezek: «Txerri-okela kurruskaria, patata-tortila eta gaztagaz. Nire gustukoena zalantza barik». Horrez gain, *Curtido*, tomate eta tipulagaz egiten den entsalada moduko bat oso sarritan jaten dutela ere esan digu.

Quito oso katolikoa dela azaldu du ekuadortarrak. Elizak «sakratuak» dira han, eta urteek aurrera egin ahala erlijioan sinisten duen jende gehiago dago. «Horretan bai ikusten dut ezberdintasuna Euskal Herriagaz, hemen jende nagusiak soilik jarraitzen du kristaua izaten, baina Hego Amerikan belaunaldi guztiak dau de horretan buru-belarri. Harrigarria da, hamabost urtean asko aldatu da kontua, ni han nengonean ez dut uste horrenbestera-ko zenik. Orain, aldiz, institutuko kide ohi bategaz berba egin eta «¡Que Dios te bendiga!» entzun behar...». ◀